



ANTHONI ARNAUD



Andrea Zubozki

## GADAFISTE BROTHERS

Maitatza amaieran kontzertua eskaini ziguten Donibane Garaziko Luis ostatuan.

Uniformizatzen ari diren mendebaldar pentsamenduen kontra doaz Gadafiste brothers. "Brigada internazionalistak Libian!" esaldia ez da usu entzuten ohol-tza gainean...

Eszena gainean hiru tipo eta ordenagailu bat. Ordenagailuaren bidez, bateria eta sampleak bidaltzen zizkiguten: tu-ka, tu-tu-ka erritmo geldiezin baten gainean, gitarristak bere riff punkiak ematen zizkigun. Bere ondoan bi kantari: mikro zangoak kakiterat igorri ondoan, mikroari lotutako kableak ematen zaien luzetasun guzia maximora arte erabiliz, publikoaren gainerat jauzi egiten zuten.

Kontzertuan, *Saif al Irati* haien disko berriko kantuak entzun izan ditugu: *Gaueko Sorginak*, *Indiana Jones*, *Kevin eta Kattalin*, *Les bidasses à la Bidouze* eta *Palestinian only* beste kantu zaharrago batzuen artean oihukatuak izan dira.

Gadafistek publikoarekin duten ha-

rremana ikaragarria da. Ez dute kontzertu bat ematen, baizik eta kantuak jendeer kantatzen. Ezberdintasun alimalekoa. Gadafistek haien kantuak kontra boterea eramateko indar ikaragarri bat bezala erabiltzen dituzte. Kantariak publikoan, eta publikoa haiekin kantuz, nahiz eta pertsona gutxi izan gelan!

Baina berdin du; ez du publikoaren kantitateak kontzertuaren kalitatea egiten.

Kantuen artean, taldea mintzo zitzaigun; noiztenka probokatzaila, noiztenka argi eta zuzen, baina hala ere usu ironia eta trufarekin. Trufatzen badakite, denez, haien buruaz ere.

Hiru oztibartarrek dena xehatzen dute, materiala ere! Mikrofonoetan oihuka baffleak saturatu arte, mikro kableei tiraka, edo/eta hegazkina egiten kablearekin. Behin baino gehiagotan soinu mahaia oreka lanjeros batean sakatu digute!

Biziki maitatu ditut Gadafistak, aspaldi honetan ez nien horrelako kontzerturik ikusi; ez zuten argirik, soinu txarra baina lortu dute ostatua buruz behera jartzea.

Gadafistek ematen dituzten kontzertuak zikinak dira, akatsekin baina biziak. Iruditzen zait gero eta horrelako kontzertu gutxiago ikusten direla gure lurraldean. Gaur egun, eszena gehienak "klinikoak" edo/eta "steriloak" bilakatu ari dira. Hainbeste komedia, hainbeste soinu eta argi... eszena telebista balitz bezala. Aitzinetik prestatutako antzerki bat, biziari lekurik utzi gabe... Publikoa oro har ere joko horretan arrunt sartua da. Kontzertuak bizi orde, mugikorrarekin argazkitan hartzen edo/eta filmatzen ditu, ondotik begiratzeko inoiz bizi izan ez duen momentu bat...

Artikulu hau baliatu nahi nuke mezu baten pasarazteko irakurle orori: pantaila bat begiratu nahi baduzu, etxean gelditu. ■